



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

2016ko EBALUAZIO TXOSTENA
Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia.

Donostia, 2017ko ekainaren 21a

Edorta Bergua
(Bizikleta Bideen Plangintzako eta Sustapeneko teknikaria)



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

AURKIBIDEA

1.	Aurkezpena	3
2.	Gipuzkoako Foru Aldundiak 2016an egindako ekintzak	4
3.	Bizikletaren Estrategia ebaluatzeko adierazle-sistema	20
4.	Balantze orokorra	36



1. AURKEZPENA

Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia 2014-2022, Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluaren batzarrak 2015eko martxoan onartu zuena, Foru Aldundi honek epe horretarako bizikleta bidezko mugikortasunaren arloan garatuko dituen politika eta jarduera-ildoak orientatzeko tresna da.

Horiek gauzatze aldera, estrategiak urteko kudeaketa-plana prestatzea aurreikusten du, bertan jasotzeko urtean zehar zabaldu beharreko jarduera-programen multzoa.

Era berean, emaitzak ebaluatzeko mekanismo gisa txosten bat idaztea finkatzen du. Txosten hori egiteko bi alderdi hartuko dira oinarritzat: estrategian finkatutako helburuetatik ondorioztatutako emaitzak —adierazle-sistema batean jasoko baitira—, eta urteko kudeaketa-planean aurreikusitako ekintzen gauzatze-maila.

Mugikortasuneko eta Lurraldearen Antolaketako Departamentuak ez zuenez aurkeztu 2016ko Kudeaketa Plana Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluan, ezin da ebaluatu bertan bildutako ekintzen gauzatze maila. Horregatik, txosten honetan gabezia hori arintzen saiatuko gara, eta horretarako Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak eta Bide Azpiegituretako Departamentuak arlo honetan egin dituzten jarduketa nagusien berri emango da.

Beraz, ebaluazio txosten hau egin da, Aldundi honek hartutako konpromisoa betetzeko. Txostena, ondoren, Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluari bidaliko zaio, aztertu eta dagokion irizpena eman dezan¹.

¹ Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluko araudiak 4. artikuluan ezartzen du bere jarduketa esparrua Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia egin, garatu eta ebaluatzera mugatzen dela.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

2. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK 2016AN EGINDAKO EKINTZAK

Jarraian Gipuzkoako Foru Aldundiak bizikletazko mugikortasunaren alorrean 2016an egindako ekintza nagusiak aurkeztuko dira.

Informazio hori 11 ardatz estrategikoen eta Bizikletaren Estrategiak ardatz horiek zabaltzeko aurreikusitako lan-programen arabera egituratua dago. Hartara, 2016an ardatz bakoitzean egindako aurrerapenak azter daitezke eta 2015ean lortutako emaitzekin aldera daitezke, horien garapena ikusteko.

Jarraian aurkezten diren datu ekonomiko guztiek BEZa barne hartzen dute.



Azpiegiturak eta zerbitzuak

1. Udal-azpiegitura- eta zerbitzu-sareak osatzea eta hobetzea

Programak	Eginiko ekintzak	Aurrekontu gauzatua	Informazio osagarria
1.2 Udal-azpiegiturak eta -zerbitzuak sortzeko programa	Oinezko eta bizikletazko mugikortasuneko udal-ordenantzen inguruko lan-jardunaldiak.	907,54 euro.	Bertaratutako kide-kopurua: 50 Jardunaldiaren balorazio orokorra: 8,6/10
	Bizikletaren aldeko udal-esperientzien II. jardunaldiak, eta Bizikletaren udal gidaliburuaren aurkezpena.	1.560,00 euro.	Bertaratutako kide-kopurua: 83 Jardunaldiaren balorazio orokorra: 8,7/10 Cristina Enea Fundazioarekin batera antolatua.

2. Foru-azpiegitura- eta zerbitzu-sareak osatzea eta hobetzea

Programak	Egindako ekintzak	Aurrekontu gauzatua	Informazio osagarria
2.1 Foru-azpiegiturak eta -zerbitzuak sortzeko programa	Foru bizikleta-bideen oinarritzko sareko tarte berrietan inbertitzea:	1.129.567,56 euro	Honako tarte hauek eraiki dira: <ul style="list-style-type: none">- Lasarte – Txikierdi (0,245 km)- Astigarraga – Zarkumendegi (1,275 km)- Anoeta – Tolosa (2,460 km)- Andoain – Villabona (Sorabilla) (0,689 km) Oinarritzko foru sarea eraikitzeko 2.429.622,00 euroko aurrekontua zegoen; hortaz, gauzatze-maila % 46,49koa izan da.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

			Bidasoako ospitalea – Amute zatiaren exekuzioa atzeratu egin denez, horrek 996.080 euro ez gauzatzea ekarri du. Jarduketa hau 2017an zehar lizitatuko da.
2.2 Foru-sarearen artapen-programa	Foru bizikleta-bideen oinarritzko sarearen mantentze-lanetan inbertitzea.	862.000,00 euro	2015eko Kudeaketa Planeko ebaluazioan aditzera eman zenez, 2016an Errepideetako, eta Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko zuzendaritza nagusiei bizikleta-bideen foru-sareei buruzko txostena aurkeztu zitzairen. Txosten horrek aurretiaz baloratzen ditu bideen mantentze-egoera, seinaleztapena eta argiztapena, bidegurutzeen segurtasuna, irisgarritasuna eta tarteen konektagarritasuna.
2.3. Foru-azpiegiturak eraberritzeko eta hobetzeko programa ²	Oinezkoen eta bizikleten aforalekuen foru-sarea mantentzea eta zabaltzea (kontagailuak mantentzea, GSM datuak bidaltzea, pilak aldatzea).	8.989,50 euro.	

² Programa honen esparruan, Bizikletaren Estrategiak bizikleta bideen foru sareko tarte gatazkatsuak berritzeko inbertsioak egitea ere aurreikusten du.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

	<p>Oinezkoen eta bizikleten aforalekuen foru-sareko datuen jarraipena. 2015ean Gipuzkoako bizikleta-bideen foru-sarearen erabiltzaileen inguruko azterketak.</p>	<p>Ez du gastu espezifikorik eragiten.</p>	<p>2015eko azterketa idatzi da eta ondorio nagusiak Bizikletaz aldizkarian aurkeztu dira.</p> <p>Honako datu hauek dira aipatzekoak:</p> <ul style="list-style-type: none">– 2015ean 7.747.108 joan-etorri egin ziren (21.283 bidaia egunean), horietatik 6.202.414 oinez (% 80) eta 1.544.694 (% 20) bizikletaz.– 2008-2015 bitartean, txirrindularien kopurua urtero batez beste % 13 handitu zen, eta oinezkoena, % 19.– Bizikletaz egiten diren joan-etorrien % 38 eta oinez egiten direnen % 14 eguneroko bidaiak ziren, hau da, lantokira edo ikasketazentzora joatea, edo erosketak edo beste kudeaketak egitea zuten helburu.
--	--	--	---

3. Bizikletak galtzadetan sartzea: trafikoa moteltzea

Programak	Eginiko ekintzak	Aurrekontu gauzatua	Informazio osagarria
3.1 Hiri-esparruan trafikoa moteltzeko programa	Trafikoa moteltzeko ekintzak hiri-eremuetan, eta txirrindulariak galtzadan sartzea	412.846,61 euro	Trafikoa moteltzeko 5 jarduketa egin dira: GI3310 errepidean (Eskoriatza, Kuartuena auzoa), GI-3950 errepidean (Eibar, Miraflores auzoa); N-634 errepidean (Deba, Santiago bidearekin bidegurutzera), N-631 errepidean (Zestoako zeharbidea), eta GI-2632 errepidean (Elgeta).



--	--	--	--

4. Bizikletaren eta ibilgailu kolektibo motordunen intermodalitatea hobetzea

Programak	Eginiko ekintzak	Aurrekontu gauzatua	Informazio osagarria
4.1. Bizikleta-trena intermodalitatea bultzatzeko programa ³	Euskotren eta Eusko Trenbide Sarearekin (ETS) bilera, haien geltokietan bizikleten aparkalekuen Plana egiteko aukera lantzeko.	Ez du gastu espezifikorik eragiten.	<p>Egun, Euskotrenek eta ETSk ez dute honako alderdi hauek definitzen dituen planik: bizikleten aparkaleku gisa erabiltzeko espazioak egokitzeko aukerak, geltokietara bizikletaz iristeko baldintzak, kudeaketa-eredu komun bat, horren zabaltzea eta finantzatzea... Hala ere, badute plan hori egiteko interesa, beren baliabide ekonomikoak zein diren ez jakin arren, Eusko Jaur-larritza berria oraindik eratu gabe baitago.</p> <p>Sei hilabeteko epean (2017ko maiatzean) berriro ere harremanetan jarriko gara, ETSk eta Euskotrenek plan horren definizioan egindako balizko aurrerapenak ezagutzeko.</p>

³ Programa honen esparruan, Bizikletaren Estrategiak operadoreekiko lankidetzaz ezartzea ere aurreikusten du, trenetan bizikletak garraiatzeko espazioa jartzeko, eta espazio horren erabilera arautzeko (material mugikor berria lizitzeko irizpideak prestatzea).



Sustapena, kudeaketa eta erregulazioa

5. Bizikleta turismorako eta naturara iristeko aukera bihurtzea

Programak	Eginiko ekintzak	Aurrekontu gauzatua	Informazio osagarria
Nazioarteko bizikleta-sareak bultzatzeko programa	EuroVelo sareari eta mugaz gaindiko bizikletazko mugikortasuneko beste ekimen batzuei jarraipena eta laguntza, EDERBIDEA proiektuan parte hartuz.	9.6 programa ikusi	Espainiako estatuan EuroVelo proiektuaren gauzatzearen eboluzioa jarraitzeaz gain, GFAk mugaz gaindiko proiektu horretan parte hartzen du (ikusi informazio gehiago 9.6 programan).
5.4 Bizikletazko turismoa barnealdean eta kanpoaldean zabaltzeko programa	TeleDonostirekin lankidetzan, Gipuzkoako bizikleta-bideen sarea ezagutarazteko erreportajeak egiteko.	6.911,52 euro.	6 erreportaje grabatu eta igorri dira honako ibilbide hauei buruz: – Anoeta – Leitzaran http://www.gipuzkoa.tv/def/197194572.mp4 – Anoeta – Ordizia http://www.gipuzkoa.tv/def/1718587465.mp4 – Arrasate – Oñati http://www.gipuzkoa.tv/def/780243452.mp4 – Herrera – Arditurri http://www.gipuzkoa.tv/def/2007482651.mp4 – Irún – Endarlatsa http://www.gipuzkoa.tv/def/40670457.mp4 – Zumarraga – Azpeitia http://www.gipuzkoa.tv/def/1211888450.mp4 Bideo horiek jendearen eskura daude Gipuzkoa TV (Gipuzkoako bideoteka) kanalean.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

5.6 Foru-aterpetxeak bizikletazko turismora egokitzeko programa	Foru-aterpetxe eta landa-etxeetan bizikletentzako aparkalekuak jartzea.	1.191,75 euro.	2 foru-aterpetxetan eta 5 landa-etxetan bizikletentzako 68 aparkaleku jarri dira guztira, honela banatuak: <ul style="list-style-type: none">– U alderantzikatuko 6 aparkatzeko modulu (bakoitza 4 hagez osatua) jarri ziren 5 landa-etxetan (48 aparkaleku).– Segura eta Orioko foru-aterpetxeetan bizikletak aparkatzeko 2 modulu jarri ziren, goitik eta albotik itxiak (multzo bakoitza U alderantzikatuko 5 hagez osatua), (20 aparkaleku). Era berean, aparkatzeko moduluekin batera, aterpetxe bakoitzari bizikletak konpontzeko erreminta-kit bana eman zaio.
---	---	----------------	--

6. Bizikleta eguneroko jarduera fisikoan eta osasunean txertatzea

Programak	Eginiko ekintzak	Aurrekontu gauzatua	Informazio osagarria
6.5 Kiroleko txirrindularitza eguneroko txirrindularitzara igarotzeko programa	Kiroleko txirrindularitza eguneroko txirrindularitzara igarotzeko programa azterketa-dokumentuaren aurkezpena Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko, eta Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusiei.	Ez du gastu espezifikorik eragiten.	Dokumentu hori 2015ean egin zen, eta Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko, eta Gazteria eta Kirol zuzendaritza nagusiei aurkeztu zain zegoen. Honako ondorio hauek atera dira: <ul style="list-style-type: none">– Kirol-txirrindulariek eta biztanleek, oro har, arrazoi berdinegatik ez dute erabiltzen bizikleta eguneroko bizitzan.– Kirol-txirrindulari gehienek ez dute bizikleta



			<p>garraiobidetzat hartzen, kirol-jarduera egiteko ibilgailutzat baizik.</p> <ul style="list-style-type: none">– Hala eta guztiz ere, txirrindularitzaren kirol-ikuspegia eta eguneroko ikuspegia erabat bateragarritzat jotzen dira, eta badago jarduteko marjina kirol-txirrindularien zein beste edozein kirol egiten duten pertsonen artean bizikleta garraiobide gisa sustatzeko.– Horregatik, Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren nahiz Kirol Zuzendaritza Nagusiaren irizpenera jarri zen etorkizunean programa honi jarraipena emango dioten hainbat jarduketa egiteko aukera.
--	--	--	---

7. Bizikleta eskola umeen prestakuntzako elementutzat jasotzea

Programak	Eginiko ekintzak	Aurrekontu gauzatua	Informazio osagarria
7.5 Gazteen aisialdiaren esparruan mugikortasun iraunkorren eta bizikleta bidezko mugikortasunaren inguruko sentsibilizazio-programa	“Las alas están en los pies. Adolescentes, movilidad sostenible y espacio público. Guía práctica para educadores/as y monitores/as” gidaliburuaren aurkezpena eta zabaltzea.	Ez du gastu espezifikorik eragiten.	Gea21 aholkularitza-enpresak egindako gomen-dio-gida da. Nerabeentzako hezkuntza-aisialdiko zerbitzuetan lan egiten duten pertsonen zuzenduta dago, eta helburu du gazteen sustapen-programetan mugikortasun iraunkorra eta bizikletazko mugikortasuna aintzat hartzea eta xer-tatzea.

8. Bizikletaren aukera jasotzea lan-jarduerako zentroetara hurbiltzeko aukeren artean.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

Programak	Eginiko ekintzak	Aurrekontu gauzatua	Informazio osagarria
8.2 Foru Aldundiko lantokietara oinez eta bizikletaz iristea sustatzeko ekimen-programa	Departamentuen arteko lantalde bat eratzea eperako Gipuzkoako Foru Aldundiko langileen Mugikortasun Iraunkorraren Kudeaketa Plana sortzeko.	Ez du gastu espezifikorik eragiten.	Lantaldea Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko, Funtzio Publikoko eta Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusietako teknikariek osatzen dute, eta helburu dute diagnosi partekatu eta kudeaketa-plan bana definitzea. Lan horiek 2017an bukatuko direla aurreikusi da.

9. Bizikletaren eta mugikortasunaren gaineko pertzepzio soziala aldatzea

Programak	Eginiko ekintzak	Aurrekontu gauzatua	Informazio osagarria
9.1 Helduen bizikleta bidezko zirkulazioko trebetasunak areagotzeko programa	Helduentzako ikastaro bat antolatzea bizikletaren erabilera hobetzeko, Errenteriako Udalarekin elkarlanean.	520,00 euro.	Ekintza honen helburua da zirkulazioan eskarmentua ez duten pertsonak bizikletan ibiltzen hastea egunerokoan. Ikastaroan 22 pertsonak hartu dute parte; horien artean, % 75ek adierazi zuen oso pozik zeudela jarduerarekin, eta % 25ek, pozik zeudela.
9.3 Bizikleta sustatzeko programa	Ekimenak garatzea sustapenaren esparru zabalean ⁴ :		
	1. www.gipuzkoabizikletaz.eus webgunea eta Twitter nahiz Facebook kontuak gaurkotzea eta dinamizatzea.	10.740,00 euro	Webgune horretan, 37.292 bisita egin ziren 2016an, eta 9.426 erabiltzaile sartu ziren. Dena den, 2015eko datuekin alderatuta (39.259 bisita

4 2016an eten egin dira Gipuzkoako herrietan bizikletaren erabilera sustatu eta hedatzeko programarako laguntzak (25.000 euroz hornituak).



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

			<p>eta 12.981 erabiltzaile), behera egin dute kopuruek.</p> <p>Twitter kontuan, 708 jarraitzaile daude, 178.899 inpresio lortu ziren eta profilak 7.855 bisita izan zituen. Hala, 2015eko datuekin alderatuta (143 jarraitzaile berri, 165.371 inpresio eta 2.816 bisita profilean), gora egin dute kopuruek.</p> <p>Facebook kontuak 2.782 jarraitzaile ditu, 2015ean baino 68 gehiago.</p>
	2. "Bizikletaz" aldizkariaren argitalpena	21.780,00 euro	<p>Aldizkariak 12 orrialde ditu; urtean, hiru zenbaki ateratzen dira, eta bakoitzaren 9.000 ale.</p> <p>Aurreikusitako hiru zenbakiak argitaratu ziren 2016an.</p>
	3. Bidegorri Fest jaialdia antolatzea Tolosaldea Garatzenekin batera, eta Tolosaldeko udalekin elkarlanean.	11.425,41 euro	<p>Jarduketa honen helburua da Gipuzkoan garraio iraunkorraren aldeko sentsibilizazioa sustatzea, bizikletaren erabilera eta oinez ibiltzea bultzatzea, kutsadura murrizteko eta lurraldeko herritarren osasuna eta bizi-kalitatea hobetzeko. GFAk aurrekontuaren % 75 jarri zuen.</p>
	4. Lankidetzeta-hitzarmena Gipuzkoako Ikastolen Elkartarekin eta Kilometroak Kultur Elkartarekin, Kilometroak festarainoko bidea bizikletaz egitea sustatzeko eta errazteko (2016ko eta 2017ko festak).	6.000,00 € Hitzarmen honek 6.000 euroko ekarpena aurreikusuten du 2016an, eta beste 6.000 euro 2017an. Guztira, Gipuz-	



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

		koako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak 12.000 euroko ekarpena egingo du 2 urtean, mugikortasun iraunkorra eta osasungarria sustatzeko.	
	5. Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia eta Zikloteka (Gipuzkoako Bizikletaren Dokumentazio Zentroa) aurkeztea Ingurumenaren Biltzar Nazionalan (CONAMA).	Ez du gastu espezifikorik eragiten.	Ingurumen sektorearen topagunea, bi urtez behin egiten dena. Honako gai hauekin lotutako ezagutza eta gaitasunak hobetzeko plataforma bat da: ingurune naturalaren eta biodibertsitatearen defentsa, baliabide naturalen erailera iraunkorra, eta kutsaduraren eta klima-aldaketaren prebentzioa.
9.4 Erakunde sozialek bizikleta sustatzeko dituzten ekimenetarako pizgarrien programa	Bizikleta sustatzen duten sare sozialei laguntza: bizikleta garraiobide gisa erabiltzea sustatzeko jarduerak garatzen dituzten entitateentzako laguntzen deialdia.	10.719,86 euro.	Laguntza horietarako aurrekontua 15.000 eurokoa izan da, baina ez da guztiz gauzatu, 3 entitate onuradunek ez dituztelako justifikatu hasieran aurreikusitako gastuak.
	Laguntza ekonomikoa ConBiciri (hiri-barneko txirrindularien 60 elkarte eta kolektibo biltzen dituen estatuko koordinatzailea), estatuko bizikletaren estrategia baten aldeko bideo bat egiteko.	1.815,00 euro.	Bideoa esteka honetan ikusgai dago: https://youtu.be/QNOqzGnX68U



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

9.6 Kanpoko lankidetzarako programa, mugikortasun iraunkorarekin eta bizikletarekin lotuta	Bizikletazko mugaz gaindiko mugikortasunari buruzko EDERBIDEA proiektua abian jartzea.		<p>Proiektu hori 12 kideren artean egiten da: Gipuzkoako Foru Aldundia, Pirinio Atlantikoen Departamentua, Nafarroako Gobernua, Imotzeko, Biarritzeko, Donibane Lohizuneko, Hendaiako eta Irungo udalak, Sud Pays Basque aglomerazioaren komunitatea, Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoa, Cederna Garalur Elkartea eta Plazaola Partzuergo Turistikoa.</p> <p>Aurrekontu osoa 9,4 milioi eurokoa da. Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA) 2014-2020 programaren barruan dago, eta EBk aurrekontuaren % 65 jarri du, FEDER Eskualde Garapenerako Europar Funtsaren bitartez.</p> <p>Hainbat ekintza daude Baiona, Donostia eta Iruñea arteko bizikleta-bideen konexioak amaitzeko, bizikleta garraiobide gisa erabiltzea bultzatzeko, eta arlo horretako ezagutzak hedatzeko eta trukatzeko.</p>
	Tokiko txirrindularitza-politikei buruzko mugaz gaindiko gisa idazteko, editatzeko eta zabaltzeko enkargua agintzea.	Ez du gasturik sortu 2016an	Zeregin horiek Gea21 aholkularitza-enpresari esleitu zaizkio, eta 2017ko maiatzean amaituko dituzte. Guztira 13.673 euroko aurrekontua du.
	Mugaz gaindiko foro bat dinamizatzeko zerbitzua prestatzeko agintzea, bizikletazko mugikortasunari buruzko ezagutzak trukatzeko eta gogoeta egiteko.	3.842,50 euro.	Lan hauek Aratz Arregi aholkulariari esleitu zaizkio, eta 2017an zehar egingo dira. Aurrekontua, guztira, 17.545,00 euro da.



10. Bizikletari laguntzeko plangintza eta arau esparru bat sortzea

Programak	Eginiko ekintzak	Aurrekontu gauzatua	Informazio osagarria
Bizikletarekin lotutako beste araudi eta gomendio batzuk garatzeko eta hobetzeko programa	Oinezkoen eta txirrindularien trafikoari buruzko udal-ordenantzarako eduki-proposamena prestatzea.	6.776,00 euro.	<p>Mirua21 aholkularitza-enpresari eskatu zitzaion dokumentu hori prestatzeko, eta helburua udalerriei laguntzea da, trafikoari, espazio publikoari eta mugikortasunari buruzko araudietan orain baino areago txertatzeko txirrindularien eta oinezkoen mugikortasuna.</p> <p>Eztabaida teknikoan landu zen gaia, urriaren 19an eginiko Oinezkoen eta txirrindularien mugikortasuneko Udal Ordenantzei buruzko lan-jardunaldiaren esparruan. Hala, bertan bildutako ekarpenekin batera, finkatu egin da azken bertsiorako oinarria, asmoa baita azken bertsio hori 2017an argitaratzea eta zabaltzea.</p>

11. Bizikletaren politika kudeatzeko tresnak sendotzea edo sortzea

Programak	Eginiko ekintzak	Aurrekontu gauzatua	Informazio osagarria
11.1 Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua dinamizatzeko programa	Hiru ohiko bilera egin dira.	Ez du gastu espezifikorik eragiten.	<p>Bileretan parte hartu duen pertsona kopurua nabarmen jaitsi da urtean zehar: urtarrileko bileran deitutako entitateen % 58k parte hartu zuten; apirilekoan % 44k; eta ekainekoan % 33k.</p> <p>Bizikletaren Estrategiak proposatzen du Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua sustatzea, tokiko eta eskualdeko ordezkagarritasuna zabaltzeko,</p>



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

			<p>eta baliabide gehiagoz eta koordinazio funtzio gehiagoz hornitzea.</p> <p>Era berean, udal-elkarlaneko sareak Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluan txertatzeko asmoa dago, eta bertan bultzatu nahi dira, ekimenak elkarrekin kudeatzeko.</p>
11.2 Gipuzkoako Bizikletaren Behatokia dinamizatzeko programa	Behatokiaren eginkizunak zabaltzea eta definitzea, webgunearen eta beste tresna batzuen bidez partaidetza publikora zabaltzea barne ⁵ :		
	1. Herritarren ekarpenak jasotzeko urteko memoria egitea.	Ez du gastu espezifikorik eragiten.	Ez da egin Bizikletaren Estrategiak proposatutako memoria, ez baita herritarren ekarpenik jaso, egin diren kontsulta eta informazio eskaeraz harago.

⁵ Programa honen esparruan, Bizikletaren Estrategiak hainbat jarduketa egitea aurreikusten du, hala nola: webgunean herritarren partaidetzarako foroak jarri eta dinamizatzea; bizikletaren arloko euskara-gaztelania hiztegia egitea; wikipedian bizikletaren inguruan dagoen ezagutza konpartitua hobetzea, bai euskaraz bai gaztelaniaz; edo bizikleta baliabideen Gipuzkoako mapa egitea.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

	2. Foru-sareko erabiltzaileei galdetegia.	11.833,80 euro	<p>Galdetegi hori abiapuntutzat hartuta, Biziker aholkularitza-enpresak azterlan bat egin du Gipuzkoako foru bizikleta-bideen 2016ko erabilerari buruz. Ondorio nagusiak Bizikletaz aldizkarian argitaratu dira, eta honako hauek dira nabarmentzeko modukoak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Txirrindulari-fluxuaren % 38k lan egitera, ikastea, kudeaketak edo erosketak egitea du helburu. Azken lau urteotan, eguneroko mugikortasun hori 9 puntu areagotu da. Eguneroko txirrindularien % 54k dio autoz joango litzatekeela bizikleta-biderik ez balego. Txirrindulari guztien % 81 gizona dira. Dena den, lau urtean, emakumeen proportzioa % 14tik % 19ra handitu da. Txirrindularien % 75 25 eta 65 urte bitartekoa da, eta azken lau urteotan, batez besteko adina 5 urte handitu da.- Oinezkoen joan-etorrien % 86 aisialdiarekin, ibilaldiekin eta kirolarekin lotuta daude. Alabaina, eguneroko joan-etorriek 10 puntu egin dute gora azken lau urteotan. Oinezkoen artean, % 52 emakumezkoak dira, eta % 48, gizona.- Oinezkoak eta txirrindulariak, oro har, oso pozik daude erabiltzen dituzten bideen egoerarekin (txirrindulariek, 7,8 puntu 10etik; oinezkoek, 8 puntu 10etik).
--	---	----------------	--



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

	3. Zikloteka Gipuzkoako Bizikletaren Dokumentazio Zentroaren zuzendaritza-lana eta finantzazioa.	8.000,00 euro.	Zikloteka ekimen aitzindaria da Europan, eta Cristina Enea Fundazioarekin elkarlanean egiten da. Espazio fisikoa eta birtuala ditu, eta haietan, bizikletarekin, garraiobide gisa, lotura duten Gipuzkoan eginiko dokumentuen funtsa dago profesionalentzat, erakundeentzat eta interesa duen beste edonorentzat; 2.000 erreferentzia baino gehiago daude, idatzizko euskarrian, euskarri grafikoan eta ikus-entzunezko euskarrian.
--	--	----------------	---



3. BIZIKLETAREN ESTRATEGIA EBALUATZEKO ADIERAZLE SISTEMA

Adierazi moduan, Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia ebaluatzeko adierazle-sistema bat dago, Estrategiako helburuen ondorioz sortzen direnak. Kapitulu honetan aztertuko ditugu adierazle horiek.

2016ko Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia ebaluatzeko txostenean egiaztatu zen ezin izan zela adierazleen heren bati baino gehiagori buruzko informazioa bildu, hala datu batzuk ezin zirelako eskuratu nola beste datu batzuk argitaratzeko maiztasuna zenbait urtetakoa zelako.

Horrenbestez, txosten honetan kontuan hartuko dira urtero argitaratzen diren adierazleak soilik; dena den, jatorrizko multzoko zenbakiak bere horretan utziko dira, erraz aurkitzeko eta hurrengo urteetan argitaratuko diren txostenekin erkatu ahal izateko.



3.1. Mugikortasun-helburu orokorreari lotutako adierazleak

3. helburua	
<i>Herrien arteko joan-etorri aktiboak (oinezkoak eta bizikletazkoak) areagotzea.</i>	
Jarraipen-adierazleak	Emaitzak
3.1 Erabiltzaile-kopurua Oinarrizko Foru Sarean jarraipena egiten den tarteetan. Urtean eta laurtekoan izandako aldaketa.	<ul style="list-style-type: none">• 7.747.108 joan-etorri (2015eko datuak).• Urtean izandako aldaketa: % 14,12• Laurtekoan izandako aldaketa: % 37,79
3.2 Txirrindulari-kopurua eta -ehunekoa Oinarrizko Foru Sarean jarraipena egiten den tarteetan. Urtean eta laurtekoan izandako aldaketa.	<ul style="list-style-type: none">• 1.544.694 joan-etorri bizikletaz (2015eko datuak).• Joan-etorri guztien % 19,93.• Urtean izandako aldaketa: % 12,57• Laurtekoan izandako aldaketa: % 27,07
Balorazioa 😊	
<p>Oinezkoen eta txirrindularien joan-etorri kopurua Oinarrizko Foru Sarean nabarmena da eta etengabe ari da hazten; guztira, Lurraldebusek 2015ean garraiatutako bidaiarien % 33,8 dira.</p> <p>Txirrindularien joan-etorriek ere gora egiten dute nahiko bizkor; alabaina, erabiltzaile guztien % 20 baino ez dira.</p> <p>Besteak beste, arrazoi hauengatik handitu da erabilera: bizikleta-bideen foru-sarearen luzera areagotu da; udalerrietan hobetu egin dira oinez edo bizikletaz ibiltzeko baldintzak; udalek hainbat ekimen abiarazi dituzte bizikletaren erabilera handitzeko; aldaketak gertatzen ari dira mugikortasunaren kulturean, bereziki gazteen artean; krisi ekonomikoak eragina izan du; erregaien prezioa handia da, etab.</p>	



3.2. Azpiegitura helburuei lotutako adierazleak

1. helburua <i>Bizikletarako eta trafikoa moteltzeko hiri-azpiegiturak osatzea Gipuzkoako udalerrietatik % 50ean.</i>			
Jarraipen-adierazleak	Emaitzak		
1.1 Bizikletarako hiri-azpiegiturak egin dituzten edota beren eskumeneko bideetan trafikoa moteltzeko neurriak finkatu dituzten Gipuzkoako udalerrien ehunekoa.	53 udalerrri (% 59,6)		
1.2 Oinarrizko Udal Sarean egindako bizikletazko eta oinezko bideen luzera eta ehunekoa, ibilbideka zehaztuta.	IBILBIDEA	Luzera (km)	% Gauzatze %
	1. ibilbidea: Donostia - Irun	27,515	% 67,3
	2. ibilbidea: Donostia - Mutriku	16,675	% 56,8
	3. ibilbidea: Donostia - Beasain	24,188	% 69,6
	4. ibilbidea: Debarroa	8,875	% 45,7
	5. ibilbidea: Urola bailara	6,776	% 66,1
	6. ibilbidea: Bergara - Beasain	2,437	% 75,1
	7. ibilbidea: Bidasoa bailara	3,300	% 75,7
	8. ibilbidea: Leitzaran bailara	2,933	% 100,0
	9. ibilbidea: Ego bailara	0,000	% 0,0
	Guztira	92,701	% 61,5
Balorazioa 😊			
Bizikletaren Estrategiaren helburu hori erdietsita dago, udalerrien % 60k baino gehiagok hiri-azpiegiturak baitituzte bizikletarako. Bestalde, Oinarrizko Udal Sarean gauzatze maila, LAPen aurreikusitakoari erreparatuta, % 61,5ekoa da jada. Horrek esan nahi du ehuneko 2,4 puntu areagotu dela 2015eko datuekin alderatuta.			



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

2. helburua			
<i>Bizikleta Bideen Foru Sarea aurreikusitako luzera osoaren % 80raino osatzea, egungo sarea bikoizteko.</i>			
Jarraipen-adierazleak	Emaitzak		
2.1 Oinarrizko Udal Sarean egindako bizikletazko eta oinezko bideen luzera, ibilbideka zehaztuta.	IBILBIDEA	Luzera (km)	
	1. ibilbidea: Donostia - Irun	27,751	
	2. ibilbidea: Donostia - Mutriku	22,600	
	3. ibilbidea: Donostia - Beasain	58,343	
	4. ibilbidea: Debarroa	34,220	
	5. ibilbidea: Urola bailara	33,273	
	6. ibilbidea: Bergara - Beasain	5,415	
	7. ibilbidea: Bidasoa bailara	9,472	
	8. ibilbidea: Leitzaran bailara	22,318	
	9. ibilbidea: Ego bailara	0,000	
	GUZTIRA	213,396	
2.2 Oinarrizko Udal Sarean egindako bizikletazko eta oinezko bideen luzera eta ehunekoa, ibilbideka zehaztuta.	IBILBIDEA	Luzera (km)	% Gauzatze %
	1. ibilbidea: Donostia - Irun	0,236	% 1,7
	2. ibilbidea: Donostia - Mutriku	5,925	% 10,9
	3. ibilbidea: Donostia - Beasain	34,155	% 50,5
	4. ibilbidea: Debarroa	25,345	% 41,0
	5. ibilbidea: Urola bailara	26,497	% 69,1
	6. ibilbidea: Bergara - Beasain	2,978	% 11,3
	7. ibilbidea: Bidasoa bailara	6,171	% 100,0
	8. ibilbidea: Leitzaran bailara	19,385	% 100,0
	9. ibilbidea: Ego bailara	0,000	% 0,0



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

	GUZTIRA	120,694	% 41,7
2.3 Egungo Oinarrizko Foru Sarearen luzerak laurteko bakoitzerako planifikatutako Sarearekiko izandako desbideratzea.	Ez da bidezkoa.		
Balorazioa 😞 Gaur egun, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sareak 213 km ditu, eta LAPen aurreikusitako luzera osoarekin alderatuta, gauzatze-maila % 48,5ekoa da. Hortaz, 6 km gehiago daude 2015etik hona; hots, ehuneko 1,7 puntu handitu da. Bizikleta Bideen Foru Sarearen kasuan, maila hori ia % 42an kokatzen da; beraz, inbertsio ahalegina areagotu egin beharko litzake, Bizikletaren Estrategian 2022rako aurreikusten den hedapenaren % 80ra iristeko.			



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

3. helburua

Egun dauden bizikleta-bideetan mantentze- eta eraberritze-lanak egitea, egungo funtzionalitateari eutsi diezaioten edo hura hobetu dezaten.

Jarraipen-adierazleak	Emaitzak
3.1 Kontserbazio- eta jarraipen-protokoloa duten Oinarrizko Foru Sareko bizikleten eta oinezkoen bideen luzerak, guztira eta ibilbideka zehaztuta.	IBILBIDEA Luzera (km)
	1. ibilbidea: Donostia - Irun 1,275
	2. ibilbidea: Donostia - Mutriku 3,997
	3. ibilbidea: Donostia - Beasain 32,577
	4. ibilbidea: Debarroa 21,189
	5. ibilbidea: Urola bailara 25,307
	6. ibilbidea: Bergara - Beasain 2,985
	7. ibilbidea: Bidasoa bailara 6,177 0,0 ⁶
	8. ibilbidea: Leitzaran bailara 0,0 ⁷
	9. ibilbidea: Ego bailara
GUZTIRA 93,507	
Balorazioa 😊	
Egun, Oinarrizko Foru Sareak 120,7 km ditu eginda, eta haietatik 93,5 km-an, GFAk kontserbazio- eta jarraipen-lanak egiten ditu; Leitzaran bailara alde batera utzita, ehunekotan %92,3 da.	

6 22,3 km-ko luzera duen bide hori foru titularitatekoa da, 2,9 km-ko zati bat izan ezin (Andoaingo Udalarena da). Trenbide zahar bat da, eta oinezkoek eta bizikleten erabileraz gain, baso ustiapenari lotutako ibilgailu motordunek ere erabiltzen dute. Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Oreko Departamentuari dagokio hori kudeatzea. Bertan egiten diren artapen lanen inguruko informaziorik ez dugu.

7 Gaur egun, ibilbide horretan ez dago tarterik funtzionamenduan.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

3.3. Zerbitzuekin zerikusia duten helburuekin lotutako adierazleak

2. helburua <i>Sareak sortzea, Gipuzkoako esparruan eskaini ahal izateko bai alokairu-zerbitzuak eta bizikleta-erregistroak, bai lapurreten kontrakoko sistemak, konponketa-zerbitzuak, bizikletarekin lotutako informazioa trukatzekoak eta abar.</i>	
Jarraipen-adierazleak	Emaizak
2.1 Sare horiek izatea (Bai/Ez).	EZ
Balorazioa 😞 Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak ez du programatu aurten helburu honi lotutako ekintzarik. Ez omen dago aldi berean beste eragile batzuek sortutako halako ekimenik.	

3.4. Helburu politikoekin lotutako adierazleak

1. helburua <i>Bizikletaren Kontseilua administrazioen ekimenak koordinatzeko eta bizikletarekin lotutako informazioa trukatzeko espazio bihurtzea.</i>	
Jarraipen-adierazleak	Emaizak
1.1 Bai/Ez (Adierazle hau zehazteko, Kontseiluaren jar-	Bai, partzialki.



dueren deskripzioa eta ebaluazioa behar da)

Balorazioa 😊

Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluak hausnarketa prozesu bat garatu zuen 2014-2015 urteen artean, berregituratu eta suspertzeko; izan ere, ikusita ze-
goen Kontseiluaren funtzionamendu dinamika mugatzen zela kideei GFAk bizikleta bidezko mugikortasunaren esparruan egiten dituen jarduketei buruz
informazioa ematera. Araudiak Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluari ematen dizkion gainerako funtzio espezifikoak alde batera utzita zeuden, eta horrek
agian desinteresa eta desmotibazioa eragin zezakeen kideen artean, Kontseiluak kontsulta organo gisa izan zezakeen etorkizuna arriskuan jarritz.

Hausnarketa prozesu horretatik ateratako emaitzen arabera, Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluak balorazio positiboa du. Bizikleta bidezko mugikortasu-
naren esparruko eragile nagusiek osatzen dute, eta haien arteko topaketa eta informazio trukea ahalbidetzen du. Gainera, potentzial handiko organoa
dela irizten da. Horretarako, organo hori eraldatu egin nahi da, foro dinamikoago eta operatiboagoa bilakatzeko, arlo honetako proposamenak eztabai-
datu eta egingo dituen, eta kideen parte-hartzea sustatuko duena. Horretarako, baliabide egokiak eman nahi zaizkio, iraupena eta denborak aurrera
egin ahala hobetzen joatea bermatzeko. Gainera, tokiko eta eskualdeko ekintzak koordinatzeko eta gidatzeko gaitasuna izan behar du. Zehazki, arreta
jarri beharreko 6 lan arlo identifikatu ziren. Lan arlo horietako bakoitzerako lan batzorde bat sortuko litzake. Era berean, GBKren osaera aldatzea eta
herritarren foroa sortzea planteatu zen.

Hausnarketa prozesu horri erantzuteko asmoz, 2016ko urtarrilean GFAk proposamen bat egin zion GBKri: lan talde bat sortzea, eragile interesatuekin,
aurten hezkuntzaren, informazioaren, komunikazioaren eta turismoaren arloetan zer helburu lor zitezkeen erabakitzeke. Lan horren helburua da:

- Gipuzkoan bizikletaren kultura sustatzeko egiten ari den lana balioan jarri eta ikusaraztea.
- Metatutako ezagutza teknikoak trukatzeko.
- Gertatzen ari den enplegu sorkuntzaren berri ematea.
- Jadanik bizikletara egokituta badauden azpiegituretatik eta inguruneetatik eratorritako jarduketan potentzialtasunak agerian jartzea.
- Bizikletak turismorako baliabide eta erakargarritasun gisa duen potentzialtasunak sustatzea.

2016an zehar, Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluak ohiko 3 bilera egin ditu, eta bilera horietako partaidetzak bilakaera hau izan du: urtarrileko bileran
deitutako entitateen % 58k parte hartu zuten, apirilekoan % 44k eta ekainekoan % 33k.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

2. helburua <i>Gipuzkoako Bizikletaren Behatokia garatzea, bizikletazko mugikortasuna ezagutzeko oinarrizko tresnatzat.</i>	
Jarraipen-adierazleak	Emaitzak
2.1 Bai/Ez (Adierazle hau zehazteko, Behatokiaren jardueren deskripzioa eta ebaluazioa behar dira).	Bai.
Balorazioa 😊 <p>Gipuzkoako Bizikletaren Behatokiak jarraitu egin du 2016an zehar Bizikleta Bideen Foru Sarearen eta bizikletaren erabileraren jarraipen-lanak egiten; horien helburua Sarearen kudeaketa eta mantentze-lanak hobetzea da.</p> <p>Datu horiek garrantzitsuak dira Bizikleta Bideen Foru Sarean erregistratzen diren fluxuei ezagutza zehatza dakartelako, eta aldi berean, denboran zehar nolako bilakaera duen jakin daiteke. Hortaz, lortutako datuak funtsezkoak dira bide bakoitzeko erabiltzaile-motak eta tarte bakoitzaren erabilera aztertzeko, baita bizikleta-bideen plangintza eta kontserbatze-lanak antolatzeko ere.</p> <p>Gainera, informazio hori ezinbestekoa da, batetik, jakiteko Sarearen tarte berriak abian jartzeak nolako inpaktua duen oinezkoen eta txirrindularien mugikortasunaren sustapenean, eta bestetik, gizarteari aditzera emateko bizikleta-bideen azpiegituran eginiko inbertsioek etengabe dakartela errentagarritasun sozial handia. Azkenik, aforalekuek aukera ematen digute oinezkoen eta txirrindularien fluxu kritiko posibleak antzemateko, eragina izan baitezakete erabiltzaileen arteko elkarbizitzan.</p> <p>Horretarako, Behatokiak oinezkoen eta bizikleten aforalekuen foru-sarea dauka Bizikleta Bideen Foru Sarean (18 aforaleku), eta etengabe ematen dituzte datuak joan-etorriei buruz. Datu horiek Gipuzkoako Bizikleta Bideen Foru Sarearen erabiltzaileen zenbaketari buruzko 2015eko azterketa batean erabili eta aztertu dira. Ondorio nagusiak biltzen dituen laburpena Bizikletaz aldizkarian argitaratu zuten, 22.alean.</p> <p>Datu horiek osatzeko, galdetegia bat egiten da urtero, eta hartan Bizikleta Bideen Foru Sarearen erabiltzaile diren 400 txirrindularik eta 150 oinezkok hartzen dute parte. Galdetegi horren bidez jakin nahi da nolako profil soziologikoak dituzten, zergatik desplazatzen diren, zenbateko gogobetetasun-maila duten, zer iradokizun dituzten, etab. Aurten ere, 2009tik hona egin den moduan, txosten bat egin da galdetegiak emandako datuak biltzeko eta aztertzeko (Gipuzkoako Bizikleta Bideen Foru Sarearen erabilerari buruzko azterketa, 2016), Biziker aholkularitza-enpresak egina.</p>	



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

3. helburua <i>Gipuzkoako Foru Aldundian dagozkion departamentu guztiak sartzea bizikletaren politiketan.</i>	
Jarraipen-adierazleak	Emaitzak
3.1 Bai/Ez (Adierazle hau zehazteko, departamentuen eta horien zuzendaritza nagusien jardueren ebaluazioa behar dira).	Bai, partzialki.
Balorazioa 😊 Bederatzi foru-departamentuen artean, 2016an lau hauek hartu dute parte Gipuzkoako Bizikletaren Estrategian: <ul style="list-style-type: none">– Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirola.– Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa.– Bide Azpiegiturak.– Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa.	



3.5. Zerga- eta aurrekontu-helburuekin lotutako adierazleak

1. helburua <i>Garraio-azpiegituretako inbertsioetarako foru-aurrekontuen % 15 bideratzea oinezko eta bizikletazko mugikortasunera.</i>	
Jarraipen-adierazleak	Emaitzak
1.1 Oinarrizko Foru Sarea egiteko aurrekontu gauzatua eta bideratua ⁸ . Planifikatutako aurrekontuarekiko desbideratzea.	<ul style="list-style-type: none">Aurrekontu planifikatua: 2.429.622,00 €Aurrekontu gauzatua: 1.129.567,56 €Desbideratzea: - % 53,51
1.2 Oinarrizko Foru Sareko mantentze-lanetarako aurrekontu gauzatua eta bideratua. Planifikatutako aurrekontuarekiko desbideratzea.	<ul style="list-style-type: none">Aurrekontu planifikatua: Ez dago informaziorikAurrekontu gauzatua: Ez dago informaziorikDesbideratzea: Ez dago informaziorik
1.3 Oinarrizko Foru Sarea ⁹ eraikitzeke eta mantentze-lanak egiteko aurrekontu gauzatu eta bideratuaren ehunekoa, garraio-azpiegituretako guztirako inbertsio aurrekontuaren aldean.	<ul style="list-style-type: none">Inbertsio aurrekontua guztira¹⁰: 40.155.213,56 €OFSak egiten duen portzentajea: % 4,96
Balorazioa 🚫 Oinarrizko Foru Sarea eraikitzeke aurrekontu planifikatuaren gauzatze-maila % 46koa da.	

8 Desjabetzeak barne.

9 Desjabetzeak barne.

10 Zenbateko horretan sartzen dira: errepideen artapenari lotuta gauzatutako aurrekontua (2016ko zenbateko errealaren inguruko daturik ez dugunez, kalkulatu da 2015eko zenbateko bera mantentzen dela: 33.915.649 euro); bizikleta bideen artapena (862.000 euro); errepideen eraikuntza, desjabetzeak barne (4.247.997 euro, Bidegik errepideetan egiten dituen jarduketak sartu gabe); eta bizikleta bideen eraikuntza, desjabetzeak barne (1.129.567,56 euro).



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

Datu hori baloratzeko, kontuan hartu behar da Oinarrizko Foru Sarea gauzatzeko planifikatu zen 2016ko aurrekontuak barruan hartzen zuela Bida-soako ospitalea—Amuteko bidegurutzea tartearen eraikuntza (996.080 euro), baina jarduketa hori 2017rako utzi da. Baita ere adierazi behar da planifikatutako aurrekontua murriztu egin dela, Ogasun Departamentuak hainbat atxikipen egin dituelako, guztira 271.647,90 eurokoak.

Zifra horiek 2015ekoekin alderatzen baditugu, ikusten da 2016rako planifikatutako aurrekontua aurreko urtekoa baino % 47,18 txikiagoa izan dela (4.600.083 euro); aldiz, kontuan hartzen badugu azkenean gauzatu zena, ikusten dugu 2016ko aurrekontua 2015ekoaren % 37,93 dela (2.978.050 euro).

Azkenik, Oinarrizko Foru Sarea eraiki eta artatzeko gauzaturako aurrekontua garraio azpiegiturretan egiten den foru inbertsioaren guztizko aurrekontuaren % 4,96 da; zifra hori Estrategiak 2022 urterako aurreikusten duen % 15eko portzentajetik urrun dago oraindik ere. Gainera, beherakada izan du 2015eko datuen aldean (% 7,03).

2. helburua

Mugikortasun aktiborako zerga pizgarriak ezartzea.

Jarraipen-adierazleak	Emaitzak
2.1 Pizgarri horiek izatea (BAI/EZ) eta, badauden kasuetan, horien kopuruaren zenbatespena. (Kasu honetan pizgarrien deskripzio bat behar da, zergen bilketaren testuinguruarenarekin batera).	EZ

Balorazioa 🚩

Ez da egin helburu hau lortzera bideratutako jarduketarik. Ziurrenik, helburu hau ongi lortzeko beharrezkoa izango da zenbait urte igarotzea.



3.6. Arauketa-helburuekin lotutako adierazleak

1. helburua <i>Zehaztapenen artean bizikleta sartzan duen hirigintza- eta lurralde-araudi bat edukitzea.</i>	
Jarraipen-adierazleak	Emaitzak
1.1 Bai/Ez (Dagokion organoak onartutako hirigintza- edo lurralde-plan berri bakoitzak bizikletazko mugikortasunari lotutako zehaztapenak jaso beharko ditu).	BAI
Balorazioa 😊 2016an zehar, hiri-antolaketako hiru plan orokor onartu dira behin betiko Gipuzkoan ¹¹ , eta Gipuzkoako Bizikleta Bideen LAPek ukitzen dituen bietan (Arrasate eta Soraluze) kontuan hartu dira LAPek ezartzen dituen bizikletazko mugikortasunari lotutako zehaztapenak.	

11 Arama, Arrasate eta Soraluze.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

2. helburua <i>Bizikletaren beharrak jasotzea onartzen diren hirigintzako udal-plan berri guztietako zehaztapenetan.</i>	
Jarraipen-adierazleak	Emaitzak
2.1 Bai/Ez	BAI
2.2 Hirigintzako antolamenduan bizikletarekin lotutako zehaztapenak jasotzen dituzten hirigintzako udal-planen kopurua.	2 ¹²
2.3 Bizikletarekin lotutako zehaztapenak jasotzen dituzten hirigintzako udal-planen ehunekoa, hirigintzako udal-plan guztiekiko.	% 67
Balorazioa 😊 <p>Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia prestatzeko 2014an egindako udal-galdetegian adierazten denez, 88 udalerrietatik¹³ % 38,6k jasotzen ditu hiriko bizikleta azpiegiturak plangintzan; kopuru hori % 45,5era iristen da, hiriarteko azpiegituren kasuan.</p> <p>Portzentaje hori are altuagoa da udal plangintza 2013ko ekainean Bizikleta Bideen LAP onartu ondoren eguneratu dituzten udalen kasuan. Izan ere, data horretatik gaur egunera arte, Arama eta Belauntza alde batera utzita, gainerako 12 udalerriek, hots, guztizkoaren % 83k, bizikletarekin lotutako zehaztapenak sartu dituzte hiri plangintza berrian.</p>	

12 Arrasatek eta Sorauluzek LAPek bizikleta sareari dagokionez egiten dituen proposamenak sartu dituzte, tokiko beste bizikleta bideekin osatuta.

13 Lurraldeko biztanleriaren % 96 biltzen duten 73 udalerrik erantzun zioten galdetegiari.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

3. helburua <i>Mugikortasunari edo trafikoari buruzko ordenantzak bizikletara egokitzea erregulazio-modalitate hori duten Gipuzkoako udalerrietatik % 75ean.</i>	
Jarraipen-adierazleak	Emaitzak
3.1 Bai/Ez	Bai, partzialki.
3.2 Mugikortasunari buruzko ordenantzetan bizikletaren beharren ikuspegia jasotzen duen Gipuzkoako udalerri-kopurua.	Datua ezezaguna da.
Balorazioa 😊 <p>Uste da Gipuzkoako 7 udalerritan dituztela gaur egun mugikortasunari edo trafikoari buruzko udal-ordenantzak; dena den, kasuan kasu ez dakigu zer mailatan txertatu duten bizikletazko mugikortasuna erregulazioetan.</p> <p>Helburu hori erdiesteko bidean aurrera egiteko, GFAk 2015ean eskatu zion Mirua21 aholkularitza-enpresari Gipuzkoan bizikleten eta oinezkoen trafikoari buruzko udal-ordenantzarako edukien proposamena dokumentua idazteko. Horren helburua udalerriei laguntzea da, trafikoari, espazio publikoari eta mugikortasunari buruzko araudietan orain baino areago txertatzeko txirrindularien eta oinezkoen mugikortasuna.</p> <p>Eztabaida teknikoan landu zen dokumentua, urriaren 19an eginiko Oinezkoen eta txirrindularien mugikortasuneko Udal Ordenantzei buruzko lan-jardunaldiaren esparruan. Hala, bertan bildutako ekarpenekin batera, finkatu egin da azken bertsiorako oinarria, asmoa baita azken bertsio hori 2017an argitaratzea eta zabaltzea.</p>	



Proposatutako helburuak ebaluatzeko xedez Bizikletaren Estrategiak ezartzen dituen adierazleak kontuan hartuta¹⁴, laburpen taula hau egin dugu, adierazleen irakurketa globala egin ahal izateko:

Adierazleen laburpen taula			
1. Mugikortasun adierazleak			😊
2. Azpiegitura adierazleak	😊	😞	😊
3. Zerbitzu adierazleak		😞	
4. Mugikortasunaren plangintza eta kudeaketaren adierazleak			
5. Helburu politikoen adierazleak	😞	😊	😞
6. Zerga eta aurrekontu adierazleak	😞	😞	
7. Araudi adierazleak	😊	😊	😞

Beraz, Bizikletaren Estrategiaren adierazleetatik informazioa ematen digutenak kontuan hartzen baditugu, emaitza orokor hauek lortzen dira:


¹⁴ Lehen ere adierazi den bezala, urtero argitaratzen diren adierazleak soilik hartuko dira kontuan, adierazleen heren bat baino gehiago ez baitira urtero argitaratzen, edo ez baitugu haien inguruko informaziorik.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

- Balorazio positiboko adierazleak: 6 (% 46)
- Tarteko balorazioa duten adierazleak: 3 (% 23)
- Balorazio negatiboko adierazleak: 4 (% 31)



Datu horiek 2015ekoekin alderatzen baditugu, ikusi dezakegu adierazle positiboen kopurua igo egin dela (bat gehiago), eta tarteko adierazleen eta adierazle negatiboen kopurua mantendu egin dela.

Arreta balorazio negatiboa duten adierazleetan jartzen badugu, ondorio nagusia da azpiegiturei, fiskalitateari eta aurrekontuari erreferentzia egiten dieten adierazleen agerian uzten dutela lehen ere aipatu den premia bat: inbertsio ahalegina handitzea, Bizikletaren Estrategiak 2022rako aurreikusten duen Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarearen hedapenaren % 80ra iristeko.



4. BALANTZEA

1. Oro har ikusi dugu 2016an zehar 30 jarduketa egin direla guztira Gipuzkoako Bizikletaren Estrategiaren esparruan, 2015ean baino 5 gehiago.
2. Estrategiaren esparruko ekintzetara lotuta 2016an zehar gauzatu den foru aurrekontua 2.510.651 eurokoa izan da guztira, 2015ean gauzatutako zenbatekoa baino % 53,4 gutxiago.

Zenbatekoa	Aurrekontu gauzatua			
	2015		2016	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Azpiegiturak eta zerbitzuak	5.257.067,5 €	% 97,5	2.404.414,17 € ¹⁵	% 95,8
Sustapena, kudeaketa eta erregulazioa	132.556,3 €	% 2,5	106.236,88 €	% 4,2
GUZTIRA	5.389.623,8 €	% 100,0	2.510.651,05 €	% 100,0

Zenbateko hori ikusita, kalkulatzen da urteko eta biztanleko 3,53 euro bideratzen direla ekintza horietara¹⁶, 2015ean baino dezentente gutxiago, urte horretan biztanleko 7,59 euro bideratu baitziren. Horrela, urrun dago oraindik Gipuzkoako Bizikletaren Es-

15 Zenbateko hori kontzeptu hauen batura da: 1.129.567,56 euro bizikleta bideen Oinarrizko Foru Sarea eraikitzeke; 412.846,61 euro hiri ingurunean trafikoa motel-tzeko eta bizikletariak galtzadara sartzeko jarduketak egiteko; eta 862.000 euro bizikleta bideen Oinarrizko Foru Sarea artatzeko.

16 710.699 biztanle. Iturria: Eustat (2016). "EAEko biztanleria jaiotze urteari jarraikiz, Lurralde Historikoaren eta sexuaren arabera."



trategiak proposatzen duen zenbatekotik: urteko 10-12 euro biztanleko¹⁷. Izan ere, Bizikletaren Estrategiaren arabera, kopuru hori baino gutxiago inbertituz gero, zaila da bizikletaren erabilera areagotzea.

Ahalegin ekonomiko hori bizikleta garraiobide gisa aztertzen duen ikerketa soziologikoan¹⁸ bildutako iritziak ere babesten du. Ikerketa soziologiko horren arabera, biztanleriaren gehiengo zabala (% 79) oso ados dago (% 35) edo ados dago (% 44) baliabide publiko gehiago inbertitzearekin Gipuzkoan bizikletazko mugikortasuna sustatzeko, ideia horrekin ez oso ados edo batere ados ez dauden pertsonak % 20 soilik baitira.

3. Azkenik, Oinarrizko Foru Sarea eraikitze eta mantentze-lanak egiteko aurrekontu gauzatu eta bideratuaren ehunekoa % 4,96 da, garraio-azpiegituretako guztirako inbertsio aurrekontuaren aldean. Zenbateko hori urrun dago Bizikletaren Estrategiak 2022. urterako planteatzen duen helburutik, horren arabera garraio azpiegituretara bideratzen den foru aurrekontuaren % 15 oinezkoen mugikortasuna eta bizikletazko mugikortasuna sustatzera bideratu beharko bailitzake. Era berean, zenbateko hori jaitسي egin da 2015ekotik (% 7,03).
4. Atxikitako grafikoan ikusi daitekeen bezala (ikus 40. orria), 2016ko datuak 2015ekoekin alderatuta, gauzatutako aurrekontua jaitسي egin da 11 ardatz estrategikoetatik 9tan. Hala ere, jaitسي era horren zatirik handiena 2. ardatz estrategikoko inbertsioek izan duten murrizketaren (% 54ko) ondorio da, bereziki bizikleta bideen foru sareko tarte berrien eraikuntzan.

Datu horrek agerian uzten du ez dela bete Gipuzkoako Bizikleta Bideen LAPek aurreikusirako programazio ekonomikoa, Oinarrizko Foru Sareko tarteak eraiki eta artatzeari dagokionez, lehenengo lau urteetarako 60,4 milioi eurokoa baita.

¹⁷ Proposamen honek oinarritzat hartzen zituen nazioarteko hainbat erreferentzia. Adibidez, Frantzia kalkulatu zen biztanleko 10 euro inguruko inbertsioa behar zela (Atout France: “*Spécial économie du vélo*”. Paris, 2009). Zenbateko hori Erresuma Batuko Parlamentuak ezarritakoaren azpitik dago, Erresuma Batuko Parlamentuak kalkulatu baitzuen bizikletazko mugikortasun politika bat inplementatzeko biztanleko 12,5 euro (10 libera esterlina) behar zirela gutxienez (All Party Parliamentary Cycling Group: “*Get Britain Cycling*”, 2013).

¹⁸ SIADECO (2014): “*Gipuzkoan bizikleta garraiobide gisa erabiltzeari buruzko ikerketa soziologikoa 2014*”. Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua.



Beraz, Estrategia honek azpiegiturei dagokienez ezartzen dituen helburuak lortu ahal izateko, hots, 2022rako foru sarearen % 80 zerbitzuan jarri ahal izateko, ezinbestekoa izango litzake bizikleta bideen Oinarrizko Foru Sarea eraiki eta artatzera zuzendutako egungo inbertsio joeran aldaketa sakona ematea.

5. Aipatu behar da ez dela gasturik edo inbertsiorik egon hamaika ardatz estrategikoetatik¹⁹ lautan, eta hori eragozpena da ardatz estrategiko horiek garatzea eta Estrategiaren helburuak betetzea lortzeko.
6. Aztertzen badugu aurrekontua nola banatzen den, batetik, azpiegitura eta zerbitzuen arloan, eta, bestetik, sustapen, kudeaketa eta erregulazio arloan arabera, ikusiko dugu bai aurreikusitako zenbatekoak bai gauzatutakoak lehenengo arloan kontzentratzen direla oraindik ere, nahiz eta lehen baino proportzio txikiagoan izan. Bilakaera hori ez da gertatu sustapen, kudeaketa eta erregulazioaren arloan aurrekontu ahalegin handiagoa egin delako (aurrekontua % 20 murriztu da), azpiegitura eta zerbitzuetara bideratutako zenbatekoak kopuru handiagoan murriztu direlako baizik (% 54).

	Aurrekontu gauzatua	
	2015	2016
Azpiegiturak eta zerbitzuak	% 97,5	% 95,8
Sustapena, kudeaketa eta erregulazioa	% 2,5	% 4,2
GUZTIRA	% 100,0	% 100,0

Gogoan izan behar dugu Bizikletaren Estrategiak ezartzen duela lehenengo urteetan azpiegitura eta zerbitzuen arlora inbertsio ahalegin handiagoa bideratu behar dela, sustapen, kudeaketa eta erregulazioaren arlora baino. Hala ere, Estrategia garatzen

¹⁹ 4. ardatz estrategikoa: Bizikletaren eta ibilgailu kolektibo motordunen intermodalitatea hobetzea; 6. ardatz estrategikoa: Bizikleta eguneroko jardura fisikoan eta osasunean txertatzea; 7. ardatz estrategikoa: Bizikleta bidezko zirkulazioa eskola umeen formazioan sartzea; eta 8. ardatz estrategikoa: Bizikletaren aukera jasotzea lan-jarduerako zentroetara hurbiltzeko aukeren artean.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

doan heinean, eta sarea osatu ahala –hori baita inbertsio premia handiena duen elementuetako bat-, oreka bilatuko da arlo baten eta bestearen arteko proportzioan.

Egoera egokienean, lehenengo lau urteen amaieran, azpiegiturek aurrekontuaren % 90 jasoko lukete, eta % 10 sustapenera bideratutako partidei legokieke. Bigarren laurtekoa amaitzerako, zenbateko horiek orekatuagoak egon beharko lukete, % 80/20 banaketatik gertu.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

DISTRIBUCIÓN DEL PRESUPUESTO EJECUTADO POR EJES Plan de Gestión de la Estrategia de la Bicicleta de Gipuzkoa 2016

■ 2015 ■ 2016

